

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### NAVARIDASKO UDALA

#### **Hasierako onespena ematea eguneko arretarako landa zentroaren zerbitzuaren zerga ordenantzari eta zerbitzu hori arautzen duen udal arautegiari**

Udalbatzak, 2021eko uztailaren 30eko ohiko osoko bilkuran, erabaki zuen hasierako onespena ematea eguneko arretarako landa zentroaren zerbitzuaren zerga ordenantzari eta zerbitzu hori arautzen duen udal arautegiari.

Eta hori jendaurrean jartzen da, interesa dutenek espedienteak aztertu eta egoki deritzeten erreklamazioak aurkezteko aukera izan dezaten. Erreklamazioak aurkezteko, hogeita hamar egun izango dituzte, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Foru Arauaren 49. artikulua eta Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauaren 16. artikulua xedatutakoaren arabera. Epe horretan erreklamaziorik edo oharrik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betiko onetsizat joko da.

Navaridas, 2021eko uztailaren 30a

*Alkatea*

*MIGUEL ÁNGEL FERNÁNDEZ GONZÁLEZ*